



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ohikoa

Eguna: 2020.10.01

Ordua: 18:00tan

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

- Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak: Inor ez.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. AURREKO AKTAREN ONESPENA

2020/08/31ko akta aho batez onartzen da.

2. KLIMA ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ARTEKO ITUNERA ATXIKITZEA.

Idazkariak, Alkateak eta Beñat zinegotziak Klima eta Energiaren aldeko Alkateen arteko itunari buruzko informazioa ematen dute, bai eta nola eragingo lukeen honako itunera atxikitzeak Arantzako herrian. Hau kontutan harturik eta itunera atxikitzeko premia dela eta, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Klima eta Energiaren aldeko Alkateen arteko itunera atxikitzea.

Aurrekontuetan aurreikusi gabeko diru sarreara bat izaki, aurrekontua aldatu beharra dela azaltzen du. Arantzako Udaleko Exekuzio Oinarrien 13. Oinarriko 1. Puntuan xedatutakoari jarraituz, zerga itzaerari ez duen diru sarreara denez, gastuen atalean kreditua sortzeko eta erabiltzea erabaki dela azaltzen du.

16.518 euroko diru-laguntza jasotzen duela eta diru-laguntza hori Behoko Karrikako Parkea berritzeko idazkaririk Arantzako Udalak Nafarroako Gobernunik despopulazioari aurre egiteko erabaki askeko

5. ARANTZAKO BEHEKO KARRIKAKO PARKEA EGITEKO AURREKONTU ALDAKETA.

3.- Litzitateko gonbidapenak bidaltzea, horretarako ezarritako prozedurari jarraituz

xedatuz.

2.- Litzitazioari hasiera ematea prozedimendu sinplifikatu bidez eta Pleguetan ezarritako oinarrietan

1.- Bi Pleguak onartzea.

erabaki du:

Udalakideei azaldu die Plegu horien barruan xedatzen dena. Hau ikusirik, Osoko Bilkurak aho batez Hori dela eta, idazkaririk kontratazioa bideratzeko Plegu bat eta Plegu tekniko bat idatzi ditu eta idazkaririk Udalak erabaki askeko diru-laguntza jasotzen du, bai eta diru hori Arantzako Beheko Karrikan dagoen haur parke berritua berritzea pentsatuta zegoela. Halaber, aurreikusitako aurrekontua (B.E.Z.a barne) 22.000 eurokoa da eta, hornidura kontratu bat denez, prozedimendu sinplifikatu bidez esleituko da.

4. BEHEKO KARRIKAKO HAUR PARKEA HORNITZEKO ETA INSTALATZEKO PLEGUA.

3.- Enpresaren esleipena Alkate Ebazpen bidez egitea.

2.- Kontrata prezio/kalitate eskaintza hobereana aurkeztzen duen enpresari esleitzea.

1.- Laneko arriksuei aurre egiteko plan bat kontratatzea.

ondorengoa erabaki du:

idazkaririk laneko arriksuei aurre egiteko prebentzio plan bat kontratatzearen premia azaltzen du udalaldei. Udalbatzak aipaturako planaren kontratazioa egiteko Udalak duen premia ikusirik

3. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO PLAN BAT KONTRATATzea.

2.- Erabaki hau Cedemari jakinaraztea atxikitze dokumentuarekin batera.

aurrekontu aldaketa gauzatzeko Osoko Bilkuraren akordioa nahikoa dela jakinarazten du. Udalbatzak hau jakinik eta aurrekontuan aldaketa egiteko premia ikusirik, aho batez onartu du:

1.- Sarrerengatik kredituak sortzearen bidezko aurrekontu aldaketa onartzen da.

2.- 16.518 euroko kreditua sortzen da, Arantzako Udaleko 2020ko aurrekontuen irteera atalean "1 3370 60900 Haur Parkea Berritzea" izeneko partidan.

6. LEIZA MITXELENA SENDIEEN GAIAREN INGURUAN JABETZA PUBLIKOKO ONDASUN BATEN KALIFIKAZIOA, JABETZA PATRIMONIALEKO ONDASUNERA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Idazkariak 2018ko uztaiaren 23an Arantzako Udalak Leiza Mitxelena senideekin hartutako akordioa azaltzen du. Akordio horren arabera Arantzako Udalak bere jabetzakoa zen ondasun bat Leiza Mitxelena senideen 5. poligonoko 974 lur zatiarekin trukatu behar zuen. Trukaketa hori aipatutako lursailean Bortzirietako Zabor Mankomunitateko kontenedoreak ezartzeko bideratu behar zen.

Ikusirik Arantzako Udalak bere jabetzakoa zen lur-zatia jabetza publikokoa dela, Idazkariak kalifikazio hori aldatzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 103, artikuluan xedatutako prozedura jarraitu beharra dela azaltzen du. Udalbatzak hau jakinda eta trukaketa lehenbailehen egiteko premia dela, aho batez adostu du:

1.- Jabetzako publikoko ondasuna Udaleko ondare ondasunari kalifikazio juridikoa berariaz aldatzeko egokitasuna eta legezkotasuna egiaztatzen duen beharrezko espedienteari hasiera ematea.

2.- Espedientea hilabete bateko epez jendaurrean jarrita egotea Osoko Bilkuratik berriro pasa aurretik.

7. MADALENEA ETXEKO GAIAREN INGURUAN, 1992 URTEKO OSOKO BILKURAN ONARTU ZEN AKORDIOARI KONPONBIDEA EMATEA.

Idazkariak gaia azaltzen du Udalkideei. 1992 urteko Osoko Bilkuran Madalenea eta Klarisenea etxeen artean dagoen lur zatiaren inguruan, Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa zela eta, Joaquin Madariagak aurkeztutako alegazioari erantzuna ematen Udalak jabetza pribatukoa zela adostu zuen. Honen inguruan, katastroan ezarritakoa orduko Osoko Bilkuran adostu zenarekin bat ez datorrenez, Udalak erabaki du:

1.- BIDEKARI txosten juridiko espezifiko bat idazteko eskatzea gai honen inguruan sortutako zalantzak direla eta.

2.- BIDERKAREN txostena eta Udaleko Idazkariaren jarraibeen arabera, 1992an hartu zen akordioari irtenbidea ematea.

8. ARANTZAKO HIRIGINTZAKO ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak eta Eneko Zinegotziak Arantzako Hirigintzako Ordenantzan egindako aldaketen berri ematen dute. Gaiaz eztabaidatu eta zalantzak argitu ondoren Udalbatzak erabaki du:

1.- Arantzako Hirigintzako Ordenantza aldaketaren hasierako onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea irekiz.

2.- Arantzako Hirigintzako Ordenantzaren aldaketa Nafarroako Gobernuako Principe de Viana Institutura bidaltzea egoki deritzotena alegatu dezaten.

9. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK EGINDAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUN TXOSTEN BERRITUAREN ONESPENA.

Idazkariak Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egindako plantilla organikoetako lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunen eta irizpideen txosten berria, Urko Ikardo euskara teknikariak 2019ko irailaren 23an egindakoa azaltzen du. Hau dela eta Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Aipatutako Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen txostena onartzea. Halaber, txostenean zehazten diren eskakizun eta irizpideak behin-behineko lanpostu zein kontratazio berriei aplikatzea.

2.- Behin betiko eta funtzio berri bat egikarituko duen langilea kontratatzerakoan, beharrezkoa izanen da euskara mankomunitatean txostena deialdia argitaratu aitzin. Gainerako kasuetan, behin behineko lanpostu zen ordezkapenetan, gomendioa da deialdia egin aitzinetik kontsulta egitea euskara teknikariari.

3.- Akordio hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea.

10. ALKATEAREN EBAZPENAK

110/2020-120/2020 arteko ebazpenak berretsi egiten dira.

11.ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez dira egiten.

Beste aztergairik izan gabe 20:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,
Dabid Iturria Almandoz



IDAZKARIA,
Nagore Madariaga Iriarte



